

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak 2,89 milioi euro erabiliko ditu 2017ra arte bertako biztanleen eta immigranteen arteko bizikidetzaren hobetzeko

32 ekintza aurreikusi dira enplegurako sarbideari, hizkuntz bitartekotzari eta toki-esparruko kultur artekotasunaren sustapenari lotuta, beste gai batzuen artean

Viernes, 07 de noviembre de 2014

Nafarroako Gobernuak datozen hiru urteotan 2,89 milioi euro erabiliko ditu bertako biztanleen eta Foru Komunitatean bizi diren jatorri atzerritarreko bizilagunen arteko bizikidetzaren hobetzeko. Ildo horretatik, 32 ekintza egingo dira enplegurako sarbideari, hizkuntz bitartekotzari eta toki-esparruko kultur artekotasunaren sustapenari lotuta, beste gai batzuen artean.



Immigrante bat.

Hala ondorioztatzen da Bizikidetzarako Nafarroako Estrategiaren [dokumentu](#)tik. Dokumentu hori gaur goizean prentsaurrekoan [aurkeztu](#) du Gizarte Politikako kontseilari Iñigo Allik, Gizarte Politika eta Kontsumoko zuzendari nagusi Mariano Otxekin batera. Testu hori Nafarroako Gobernuak egin du toki-erakundeekin eta eragile sozialen laguntzarekin, eta haiei bidali zaie azken ekarpenak egin ditzaten behin-behineko onartu aurretik.

Aipatuenez, ekimen honen helburua da, Nafarroako bertako biztanleak nahiz Komunitatean bizi baina jatorri atzerritarra dutenak "zerbitzuen sistema publiko baten zati senti daitezen, eskubide eta betebeharrak berberekin". Horretarako, hiru ildo estrategiko finkatzen dira harrera, integrazio, bizikidetzaren, partaidetzaren eta sentsibilitateari lotuta.

Ildo estrategiko horiek 16 neurritan zehazten dira eta haiek, aldi berean, 32 ekintza barneratzen dituzte. Aurrez aipatutakoaz gain, honako hauei lotutakoak nabarmentzen dira: gazteen eta emakume immigranteen aldi baterako ostaldea; gazte immigrante eta bertakoen arteko sozializazioa eta elkarrekintzarako guneak sortzea; ahuldade-egoeran dauden emakume immigranteen jabeakuntza; gaztelania ikastea; eta doako osasun-laguntzarako sarbideari eustea.

Ekintza horiek finantzatzeko aurrekontuaren urteko xehatzeari

dagokionez, Nafarroako Gobernuak 668.332 euro erabiliko ditu 2015ean, 1.113.695 euro 2016an eta 113.695 euro 2017an.

Nafar berriak

Gaur egun, 2014ko datuen arabera, Nafarroan bizi diren 640.00 pertsonetatik % 13,5 atzerrian jaiotzen ziren, hots, 86.240 bizilagun. Haietatik, % 31 Espainiako nazionalitatea dute eta gainerako bizilagun nafarren eskubide nahiz betebeharrak berberak dituzte.

Bestalde, Espainiako nazionalitatea ez duten 59.363 pertsonak, hau da, atzerritarrak direnak, Nafarroako biztanleriaren % 9,3 dira; Espainiako batez bestekoa, % 10,7 da. Baldintza erlatiboetan, Komunitateko hegoaldean batzen dira bereziki, Tuteran inguruko biztanleriaren % 14,9 dira eta Goi Erriberakoaren % 13,2. Iruñean eta Iruñerrian, atzerritarren ehunekoa Nafarroako batez bestekoaren antzekoa da, % 10,4.

Udalerrien arabera, Castejon da atzerritar gehien dagoen udalerririk nafarra (% 23,6); atzetik daude: Alesbes (% 20,9), Larraga (% 19,9), Funes (% 19,4), Milagro (% 18,7), Cintruénigo (% 18,2), Caparroso (% 18,1), Corella (18,1%) eta Cadreita (17,6%).

16 neurri

Aipatuenez, bertako pertsonen eta atzerriko jatorria duten pertsonen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Estrategiaren dokumentuak 16 neurritan xehatutako hiru ildo estrategiko jasotzen ditu, eta honako hauek dira:

1. Atzerritarren prozesu juridiko-administratiboak kudeatzea.
2. Atzerritarren araudiari lotutako prozesuen gaineko informazioa eta desbideratzea.
3. Atzerritarrek gaztelania ikasteko aukera izatea.
4. Emakume immigranteen jabetasunaren sustatzea beren jatorrizko kultur sistematik sortutako ahuldade-egoerak detektatzean.
5. Gazte immigranteen eta bertakoen arteko sozializazioa eta elkarrekintzarako guneak sustatzea.
6. Jatorrizko herrialdera bere borondatez itzultzea.
7. Gazte eta emakume immigranteei aldi baterako ostaturia ematea.
8. Kultur aniztasuna kudeatzea.
9. Atzerritarrek Nafarroako osasun-sistemarako sarbidea izatea.
10. Egoera juridiko-administratibo irregularrean dauden biztanle atzerritarren enplegarritasuna hobetzea.
11. Toki-espazioan kultur arteko bizikidetzaren sustatzea.
12. Immigranteen elkartei laguntzea kultur aniztasuna sustatzeko.
13. Migrazio-fenomenoaren gaineko sentsibilizazio-ekintzak.
14. Nafarroako administrazio publikoetako profesional eta arduradun politikoei kultur artekotasuneko arloan prestakuntza ematea.
15. Nafarroako migrazio-fenomenoaren gaineko azterketa eta zabalkundea.
16. Hizkuntza eta kultur artekotasuneko bitartekotzan esku-hartzea.

Neurri horiek 32 ekintza batzen dituzte guztira, eta dokumentuan zehaztuta daude haien justifikatzen dituzten arrazoiekin, deskribapenarekin, helburuekin, pertsona eta talde onuradunekin, egutegiarekin, arduradunekin, jardura-modalitatearekin, ebaluatzen utziko duten adierazleekin eta aurrekontuarekin.

Bizikidetzaren aldeko apustua

Nafarroako Gobernuak egindako [diagnostiko](#)aren arabera, Bizikidetzarako Nafarroako Estrategia egin aurretik, immigranteen presentzia adierazgarria den udalerrietan bertako eta jatorri atzerritarreko biztanleen artean "aldi berean elkarrekin egoteko" harremana dago gehiengo batean; batzuen eta besteen arteko harremanik ez dago kasik, baina errespetatzen dira eta ez dute elkarren artean gatazka handirik.

Aipagarria da, azterketa horrek ere mito faltsuak eraisten dituela horretarako estatistika-datuak erabiliz, esaterako: immigranteak medikuntza gehiago joaten diren mitoa, gastu sozial gehiago kontsumitzen dutela, oinarrizko gizarte-zerbitzuak kolapsatzen dituztela edo babestutako etxebizitzaren onuradun nagusiak direla, beste adibide batzuen artean.

Nafarroako Gobernuaren apustua da "benetako bizikidetz"-ko harreman batera heltzea bizilagun batzuen eta besteen artean, horretarako toki-erakundeekin koordinatutako zehar-neurriak hartuz. Gainera, Bizikidetzarako Nafarroako Estrategiak jatorri immigranteen biztanleak zerbitzu publiko orokorretara bideratzen ahaleginduko da, aukera-berdintasuna arriskuan utz dezaketen berariazko baliabideak sortu gabe edo bazterketa-egoerak sortzen lagunduko ez dutenak.

Horiek izango dira Estrategiaren helburu nagusiak. Hala, Gizarte Politiketako Departamentuaren arabera, etapa berri bati ekingo zaio, eta bertan immigrante berriak hartzeko fasea gainditu da, migrazio-fluxuak murriztu direlako eta Espainiako nazionalitatea dutenen kopuruak gora egin duelako.

Geratzeko erabakia hartuta

Ehunekoie begiratuta, udal-eroldaren arabera, Nafarroako atzerritarren biztanleria % 1,7tik (2000. urtea) % 9,3 pasa da (2014). Nolanahi ere, balio absolutuetan, azken hiru urteotan Foru Komunitatean bizi direnen atzerritar-kopuruak % 17 egin du behera (71.600 ziren 2011n, eta 59.363 2014an).

Jaitsiera hori migrazio-fluxua gelditu egin delako gertatu da eta jatorrizko herrialdera ere itzultzen hasi direlako batzuk baina, batez ere, Espainiako nazionalitatea lortzeko prozesua bizitu delako. Azken datuen arabera, 2002tik 2013ra Nafarroan bizitako 23.383 atzerritarrek lortu zuten Espainiako nazionalitatea.

Gainera, immigrante gehienek Espainian geratzeko nahia azaldu dute (% 59,2), eta % 11,5ek, berriz, beren jatorrizko herrialdera itzultzeko interesa. Nolanahi ere, bertako pertsonekin alderatuz, pertsonen % 43,9k bizitokiz aldatzeko aukera aipatu du; bertako bizilagun gehienek, aldiz, beren udalerrian geratzearen alde egiten du.

Erabilitako iturriak

Dokumentu hori egiteko, Gizarte Politiken Departamentuak hainbat teknika kualitatibo erabili ditu Nafarroako migrazio-fenomenoaren dimentsioa era sakonean ezagutzeko asmoz, dagozkion politiko publikoak planifikatzen hasi aurretik.

Horrenbestez, elkarrizketa egin zaizkie: Nafarroako eskualdeetako oinarrizko 21 gizarte-zerbitzuri, Parlamentuan ordezkariak duten sei talde politikori, 5 immigrante-elkarteri eta gizarte-ekimeneko lau entitateri.

Halaber, azterketa-diagnostiko bat ere egin da Cintruenigo, Faltzes eta Larragako udalerrietako partaidetza sozialeko proiektu baten bidez; haren helburua da, udalerririk horietako biztanle immigranteen eta bertakoen arteko bizikidetz-egoeraren berri izatea.

Azkenik, Nafarroako Immigrazioaren Behatoki Iraunkorrek (NIBI) hainbat estatistika-iturritatik jasotako datuak aztertu ditu eta gizarteratzeko politika publikoen garapen teoriko nahiz praktikoari lotutako dokumentuak berraztertu dira.